



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

AMIANTOA

(Martxoaren 31ko 396/2006 EDaren arabera eguneratua)

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzza Saila

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

Argitaraldia: 2.a, 2008ko urtarrila

Ale-kopurua: 2.000 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomiaduna

Internet: www.osalan.net

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita bidea, z/n, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Egilea: Javier Moreno Saracibar de Osalan
Amaya Martínez de Osalan
Livia Martínez Inspectora de Trabajo y S. Social
Santiago Zufia de I.G.R.
Ricardo Martínez de Cespa-Conten

Azala marraztea: forumprint.com

Fotokonposaketa: forumprint.com

Imprimaketa: Gertu Inprimategia. Oñati

L.G.: SS-223-2008

AURKIBIDEA

Aurkezpena	.5
1. Ezaugarriak	.7
2. Motak	.8
3. Erabilerak	.9
4. Osasuna zaintzea Amiantoaren arriskua dagoenean	.11
5. Lege erregulazioa	.12
6. Aplikazio eremua. Lan plana. Bere edukia	.13
7. Prebentzio neurriak	.17
8. Seinaleak	.19
9. Amiantoaren ordezkioak	.21
10. Hondakinak	.22
11. Amiantoa: erantzukizun juridikoak	.23
11.1. Erantzukizun zibila	.23
11.2. Administrazioaren erantzukizuna	.23
11.3. Erantzukizuna Gizarte Segurantzari dagokionez	.24
11.4. Erantzukizun penala	.25
12. Erantzukizunen lehia	.26
12.1. Penala eta Administrazioarena	.26
12.2. Penala eta Zibila	.27
13. Ondorioak	.27
14. Bibliografia	.28



AURKEZPENA

Esku artean duzun argitalpen honen bitartez, amiantoaren erabilera-ekin zerikusia duten lanetan egiten diren prebentzio jarduerak eta osasuna zaintzeko jarduerak, era sinplean, ezagutzera eman nahi ditugu. Amiantoaren sarritan erabili izan da industriaren garapenaren historian zehar eta medikuntzak laurogeiko hamarkadan substantzia horren eragin larriak agerian utzi zituen.

Egun amiantoaren erabiltzea debekatuta badago ere, industriako instalazioak modernizatzeko, teknikaren eboluzioak, eta beste hainbat arrazoik amiantoaren ordez beste material egokiago bat erabiltzea ezartzen dute; hau da, berriro ere amiantoaren aurkitzen dugu, oraindik amiantoaren kantzera eragiketetan, amiantoaren erabiltzearen ondorio diren arriskuen iturri gisa. Hala ere, egun, lanerako teknika modernoak erabiltzearen eta babeserako neurri zorrotz eta aratuak izatearen ondorioz, posible da ia arriskurik ez egotea.

2005eko apirilaren 21ean OSALANek Jardunaldi Teknikoa antolatu zuen, Bizkaiko Lurralde Zentroan, eta jardunaldi horretan hainbat gai jorratu zituzten, hala nola, amiantoaren kantzera eragiketak, lanerako planak, osasun-laguntzako alderdiak, erantzukizun juridikoak,... eta denak testu honetan bildu ditugu. Hori eginez, Legeak adierazten duen helburua betetzeaz gain, amiantoaren erabiltzearen dutenei (langileak eta enpresak) aintzat izan behar dituzten prebentzio neurriak eta jarduerak hori aurrera eraman ahal izateko bete behar diren administrazio baldintzak zein diren jakinarazi nahi dizkiegu, dena martxoaren 31ko 396/2006 EDaren arabera eguneratua.

Eta, beti bezala, OSALAN zuen esanetara dago materia horren inguruan eta lan inguruan segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko.

Ignacio Murguía Mañas

OSALAN-eko Zuzendari Nagusia



1 EZAUGARRIAK

Amiantoa edo asbestoa mineral bat da eta nagusiki berunezko, aluminiozko, magnesiozko eta sodiozko silikato konplexuz osatuta dago, egitura kristalinoa du eta hautsi edo birrindu ostean zuntzak edo zuntz sortak sortzen dira; zuntz edo zuntz sorta horiek luzetara gero eta txikiagoak diren filamentutan banatzen dira eta airean bilioika izan daitezke hori gertatzen bada.

Hori dela eta, substantziaren arriskugarritasuna zehazten duten alda-gaiak bi faktoreren arabera dira: amiantozko zuntzak hausteko eta airean askatzeko probabilitatea eta materialen kontserbazio egoera.

Zuntza:

- Ingurumen balorazioetan, zuntza, gutxienez 3:1eko luzera/lodiera harremana duten partikulei esaten zaie.
- Arnas daitezkeen zuntzak 5 mikratik gorako luzera duten partikulak dira, 3 mikra baino gutxiagoko diametrokoak eta gutxienez 3:1eko luzera/diametro harremana dutenak dira.

Hainbat saio egin ostean, honako ondorioak lortu zituzten: potentzial kantzerigenoa zuntzen luzera eta diametroaren funtzioa da eta arrisku-tsuenak 8 mikratik gorako luzera eta 1,5 mikratik beherako diametroa dutenak dira.

Hori dela eta, honakoetan sailkatu dezakegu:

- Material hauskorak, lehortzen direnean eskuarekin presioa egin ez birrindu edo hauts bihurtu daitezkeenak dira.
- Material ez hauskorak, material horietan amianto irmoki atxikita dago eta zaila da zuntzak askatzea.

Kontserbazio egoerari dagokionez, zera esan dezakegu: errazagoa da amianto kopuru handia duten materialak kaltetzea eta material hauskorak dira arrisku maila handiagoa suposatzen dutenak.



Amianto hauskorra.



Zuntz-zementua. Amianto ez hauskorra.

2 MOTAK

Martxoaren 31ko 396/2006 EDaren 2. artikulua ondorengo silikato haritsuak aipatzen ditu:

- a) Aktinolita amiantoa, CAS delakoan 77536-66-4 zenbakia duena,
- b) Grunerita amiantoa (amosita), CAS delakoan 12172-73-5 zenbakia duena,
- c) Antofilita amiantoa, CAS delakoan 77536-67-5 zenbakia duena,
- d) Krisotiloa, CAS delakoan 12001-29-5 zenbakia duena,
- e) Krozidolita, CAS delakoan 12001-28-4 zenbakia duena, eta
- f) Tremolita amiantoa, CAS delakoan 77536-68-6 zenbakia duena.



Hala ere, industrian gehien erabili/aplikatzen diren motak honako hauek dira:

- a) Krisotiloa, edo amianto zuria: zuntz malgu, fin eta zetatsu itxura izaten du. Gehien erabiltzen den mota da.
- b) Amosita, edo amianto marroia: zuntz distiratsu eta zuzenak izaten dira.
- c) Krozidolita, edo amianto urdina. Kolore urdin biziko zuntz zuzenak izaten dira, eta krisotiloaren eta amositaren arteko gogortasuna izaten dute. Motarik arriskutsuena dela esaten da, eta aplikazioari dagokionez ere garrantzi handia du.

3 ERABILERAK

Amiantoak edo Asbestoak dituen ezaugarri teknologiko bereziengatik, erreezintasuna eta erresistentzia ona esate baterako (erresistentzia termikoa eta mekanikoa, azidoei eta alkaliei, elektrizitateari, etab.), honakoetan aurki dezakegu:

Eraikuntzan:

Suaren aurkako zarata-panelak.

Zementuzko aglomeratua (Zuntz-zementua, amianto-zementua), estalki, hodi, biltegi, paramentu, eta abarretan.

Lauza, baldosa txikien eta abarren... instalazioan, amianto erabiliz.

Industria kimikoan:

Paper-kartoa, plastikoko hodi, eta abarren fabrikazioan, karga sendogarri gisa.

Material isolatzaile eta plastikoen betegarri gisa.

Kautxuarekin nahastuta, estankotasun-junturak, enpaketadurak, etab. fabrikatzeko.

Plastikoekin nahastuta, lauza eta baldosa txikietan, etab.

Substantzia kimiko erasokorreko erresistentzia duen material iragzle gisa. Baita mikroorganismoak atxikitze ahalmen handia dutenak.



Industria elektrikoan:

Sorgailu eta ekoizpen-estazioen estaldura.

Junturak, zirrindolak, isolamenduak, etab.

Automobilgintzan, ontzigintzan eta aeronautikan:

Marruskadura-materialak fabrikatzearakoan: Balazta-pastillak eta -zapatak enbrage-diskoak, etab.

Motor elektrikoan estaldura, bero-iturrien eraginpean egotearen ondoriozko gainberotzeaz babesteko.

Eraikuntzan, ontzietan, eta abarretan palen isolatzaileak (soinu- eta bero-isolamendua) instalatzean.

Itsasontzi eta tren-bagoiak zatikatzean.

Tutuen bero-isolamenduan eta estankotasun-junturetan.



Zuntz-zementuzko estalkia.



4 OSASUNA ZAINZEA AMIANTOAREN ARRISKUA DAGOENEAN

Amiantoaren eraginpean izateak hainbat eragin ditu osasunean, arnas sisteman nagusiki. Arrisku honi lotuta honako patologiak deskribatu dituzte: biriketako asbetosia (biriketako fibrosi interstizial zedarrigabea), pleura-plakak, pleura-isuri onbera, biriketako minbizia eta pleuraedo peritoneo-mesotelioma. Bestelako neoplasiekin ere zerikusia duela aurkitu dute, hala nola laringe-kartzinoma eta urdail eta hesteetako kartzinomekin.

Laneko arrisku honen ezaugarri nagusia osasunaren gain dituen ondorioak amiantoaren eraginpean izan eta handik denbora luzera azaleratzen direla da; baliteke ondorio horiek jada amiantoaren eraginpean egon gabe azaleratzea eta, horretaz gainera, substantzia hori kartzinogeno potentziala da.

Hori dela eta, arrisku horren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzea prebentzio jarduera dela ulertzen dugu, eta langileen osasunean alterazio goiztiarrak aurkitzeko helburuz egiten da. Osasuna zaintzeko, kasu honetan, amiantoarentzat espezifikoa den osasuna zaintzeko protokoloa aplikatzen dugu: langileak amiantoaren eraginpean izan aurretik, amiantoaren eraginpean daudenean eta amiantoaren eraginpean izan ostean. Prebentzio Zerbitzuetako langileek aplikatzen duten protokoloaren helburua, egun zientziak duen ezagutzaren arabera, langileen osasunean izan daitezkeen ondorio goiztiarrak aurkitzea da.

Horretaz gainera, amiantoaz ari garela, amiantoaren eraginpean izan diren langileek beren osasuna bizitza osoan zehar zaindu behar dute (laneko bizitza eta lanez kanpoko bizitza); horri lanaz gerozko zaintza deritza eta legearen esparruan zehaztuta dago, izan ere osasuna zaintzea ezinbestekoa dela ezartzen du eta arriskuaren ezaugarriekiko koherentea da.

Bestalde, osasuna aipatu dugun eran zaintzen ari bagara, garrantzitsua da tabakoa uzteko helburuz prebentzio jarduera egitea beharrezkoa dela esatea, amiantoa tabakoarekin elkartzen badugu (tabakoa biriketako kartzinogenorik garrantzitsuena da) biriketako minbizia izateko arriskua era nabarmenean hazten delako.

Amiantoaren eraginpean izan diren langileen jarraipena amiantoaren eraginpean izan diren langileen Osasuna Zaintzeko Programa Integralean jasota dago. Programan zaintzaren aplikazio praktikoa apli-



katzen eta Administrazioek zentzu horretan dituzten ekimenak bateratzen dira. Protokoloa eta osasuna zaintzeko Programa aplikatzearen helburu bakarra laneko osasunean prebentziozko parte hartzea izatea da.

Amiantoaren kasuan, kartzinogeno guztiekin gertatzen den bezalaxe, benetako prebentzio estrategia arriskua minimizatzea da, langileak amiantoaren eraginpean izan daitezten ekidinez eta amiantoarekin egiten diren lana era zuzenean eginez (lanerako planak). Arriskua minimizatu ostean, amiantoaren eraginpean dauden langileen osasuna era aktiboan zaintzea erabilgarria da prebentzio metodo gisa, betiere, protokolo espezifikoa aipatzen diren jarraipen eta ebaluazio premisekin egiten bada eta langile horien bizitza guztian zehar lanaz gerozko zaintza egiten bada.

5 LEGE ERREGULAZIOA

Martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuak definitu du amiantoaren inguruko araubidea, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2003ko martxoaren 27ko 2003/18/CE Zuzentaraua Espainiako legerian egokitzearen ondorioz. Era berean, transposizio honetaz baliatuz, egunera arte dauden lege ezberdinak ere ezarri dira, ondorengo garapen eta/edo deuseztapenak ekidinez.

Azkenik, amianto-zuntzak edo berauek daramatzaten produktuak erabili, ekoiztu eta merkaturatzeko debekua ezarri zuen 2001eko abenduaren 7ko Presidentziaren MAn oinarrituta dago.

Gaur egun enpresetan amiantorik manipulatu ez bada ere ohiko lan gisa, lehendik instalatutako amianto-materiala kentzeko edo amianto-zuntzik gabeko beste material batzuekin ordeztzeko lanak gehitu dira.

Aipatu lanak gauzatzean zuntzak ingurunera erraz askatzen direnez, zuntzok oso arriskutsuak dira, eta lan horietan diharduten langileen osasunean arazo larriak eragin ditzakete.

Horregatik, arreta berezia jarriko diegu, besteak beste, eraikuntzan, industrian eta obra publikoetan egiten diren konponketa-, mantentze-, ordezkate- nahiz eraiste-lanei, eta dauden arriskuen berri emango diegu argiketari, muntatzaile, iturgin, igeltsero eta mantentze-mekanikariei, besteak beste.



6 APLIKAZIO EREMUA. LAN PLANA. BERE EDUKIA

Aplikazio eremua:

Martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuaren 3. artikulua bere aplikazio-eremua ezartzen du, beraz, langileak amianto-zuntzen edo horiek daramatzaten materialen eraginpean dauden edo egon daitezkeen eragiketa edo jardueretan aplikatu behar da, eta bereziki honako hauetan:

- a) Eraikuntzen eraisketa-lanetan.
- b) Amianto izan dezaketen elementu, makina edo tresneria desegiteko lanetan.
- c) Amianto eramateko lan eta eragiketetan.
- d) Ekipo, unitate (hala nola, itsasontziak, ibilgailuak, trenak), instalazio, egitura edo eraikinetan amianto duten materialak mantendu eta konpontzeko lanetan.
- e) Amianto-zuntzak askatzeko arriskua duten lanetan.
- f) Amianto duten hondakinak garraiatu, tratatu eta deuseztatzera-koan.
- g) Amianto-hondakinak gordetzeko baimendutako zabortegetan.
- h) Amianto duten materialak manipulatzeko eskatzen duten jarduerak eta eragiketa guztietan.

Aurrekoa horrela izanda ere, 3.1. artikuluan ezartzen du, betiere:

- baldin eta langileak eraginpean nohizbehinka badaude.
- eraginpean egote horien intentsitatea txikia bada.
- ebaluazioko emaitzek, lanlekuaren eremuan amiantoaren eraginaren muga-balioa gaintzen ez dutenean. 11. (*Lan Planak*), 16. (*Osasunaren Zaintza*), 17. (*AADE erregistroan izena ematea*) eta 18. (*Datuen erregistroa eta dokumentazio-artxibategia*) artikulua ez dira aplikatuko, honakoetan lan egiten denean:
 - a) mantentze-jarduera labur eta nohizbehinkakoetan, baldin eta hauetan bakarrik material ez-hauskorrez lan egiten denean,
 - b) narriatu gabeko material ez-hauskorrak eramatean,



- c) amiantoa duten eta egoera onean dauden materialak kapsulatu eta zigilatzean, baldin eta eragiketa horietan zuntzak askatzeko arriskua ez badago, eta
- d) airea zaindu eta kontrolatzean eta material jakin batean amiantorik dagoen detektatzeko laginketak hartzean.

Lan plana

Obrako kontratistak, lan-plana egin aurretik, *RERAn* erregistratu behar du (*Amiantoaren Arriskua duten Enpresen Erregistroa*). Erregistro hori Laneko Ordezkaritzetan dago gure Erkidegoan, eta erregistratzeko bete beharreko fitxa-eredua bertan ematen dute. Honako datu hauek zehaztu beharko dira:

- Enpresaren identifikazioa
- Lantokiaren identifikazioa
- Erabilitako lehengaiei buruzko datuak
- Amianto arriskua duten jarduerak eta prozedurak
- Produktu fabrikatuak
- Ingurumen-ebaluzioak eta osasun- eta lan-kontrolak egiten dituzten zerbitzuak.
- Jarduera horien lanlekuak kokaleku izango duen lurraldeko lan-arloko agintaritzaren aurrean aurkeztuko da lan-plana, horrek onar dezan. Lanleku hau eta inskripzioa egiteko erabilitako amianto-arriskua duten enpresen Erregistroa autonomia-erkidego ezberdinetan daudenean, enpresaburuak lan-planarekin batera, Erregistro horretako inskripzio-fitxa aurkeztu beharko du.

Berrogeita bost eguneko epea egongo da, eskabidea dagokion lan-arloko agintaritzaren erregistroan sartzen den egunetik kontaktzen hasita, ebazpena eman eta jakinarazteko; epe hori igarotakoan, inolako adierazpenik jakinarazi ezean, lan-plana onartutzat joko da.

Espedientea izapidetzean, dagokion autonomia-erkidegoko Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren eta prebentzio-alorreko organo teknikoen txostena izan beharko da.

Lan-plana onartzen duen lan-agintaritza enpresa erregistratuta dagoen lurraldean ez badago, erregistratuta dagoen lekuko lan-agintaritzari lan-plana onartzeko ebazpenaren kopia bat igorriko zaio.



Lan planaren edukia

Eraisteko teknikak aplikatu baino lehen, amiantoaren edo berori duten materialak deuseztatu egingo direla zehaztu beharko da, eta baita, eragiketa hauek burutuko dituzten langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko ere. Gainera, honako hauek zehaztuko dira:

Berriazko planak:

- a) Lanaren deskribapena, dagokion jardueraren mota: eraispena, eramatea, mantentzea edo konponketa, hondakinekiko lana, etab.
- b) Landu beharreko materiala hauskorra (amianto proiektatua, bero-isolamenduak, panel isolatzaileak, etab.) edo ez-hauskorrrak (zuntz-zementua, amianto-biniloa, etab.), manipulatu diren amianto-kopurua edo berori duten material-kopuruak adieraziz.
- c) Lanak zein lekutan egingo diren.
- d) Lana zein egunetan hasiko den eta zenbat denbora irautea aurreikusten den.
- e) Lanean zuzenean jardungo diren edo amiantoaren duten materialekin kontaktua izango duten langileen zerrenda.
- f) Aplikatu diren prozedurak.
- g) Aurreikusitako prebentzio-neurriak eta langileak amiantoaren eraginpean ahalik eta denbora gutxien egoteko hartutako neurriak.
- h) Langileak babesteko erabilitako ekipoak, honako hauek zehaztuz: ezaugarriak, deskutsatzeko unitate-kopurua eta norberaren babeserako ekipo-mota eta horiek erabiltzeko modua.
- i) Langileei zein arriskuren eraginpean dauden eta hartu behar dituzten neurriak jakinarazteko neurriak.
- k) Hondakinak deuseztatze indarrean dagoen legeriaren arabeko neurriak, enpresa kudeatzailea eta zabortegea adieraziz.
- l) Enpresaren prebentzioko baliabideak, eta kanpokoak baldin badira, hitzartutako jarduerak adieraziz.



Plan Orokorrak:

Iraupen laburreko edo aurrez programatu ezinezko eragiketak direnean, eta bereziki mantentze- eta konpontze-lanetan, enpresaburuak lan bakoitzari buruzko plan bat aurkeztu beharrean, plan bakar bat aurkeztu ahal izango du. Azken hau, orokorra eta jarduera hauei buruzkoa izango da, eta bertan, jarduera horietan kontuan izan beharreko zehaztapenak jasoko dira.

Langileen ordezkariari kontsultatu beharko zaie lan-plana egiteko.

Epeak:

Berrogeita bost eguneko epea egongo da, eskabidea dagokion lan-arloko agintaritzaren erregistroan sartzen den egunetik kontatzen hasita, ebazpena eman eta jakinarazteko; epe hori igarotakoan, inolako adierazpenik jakinarazi ezean, lan-plana onartutzat joko da.

Lan-plana onartzen duen lan-agintaritza enpresa erregistratuta dagoen lurraldean ez badago, erregistratuta dagoen lekuko lan-agintaritzari lan-plana onartzeko ebazpenaren kopia bat igorriko zaio.

Lan Planaren eranskinak:

Eranskinetan honakoak jasoko dira: Prebentzioko Ordezkariari egindako kontsultaren gutuna, kanpoko zerbitzua eta hartutako laginketak ebaluatu eta aztertze baimendutako laborategia, amianto kendu eta eramateko gaitutako langileen osasun-ziurtagiriak, zabortegiak hondakinak jasotzeko emandako onespenerari buruzko dokumentua, erabili beharreko NBEen ezaugarriak.



OSALAN-EK INFORMATUTAKO PLANEN BILAKAERA		
URTEA	JAKINARAZITAKO LAN PLANAK	ENPRESAK
1900	0	0
1995	0	0
2000	5	3
2001	22	7
2004	39	7
2005	65	6
2006	110	9
2007	151	12

7 PREBENTZIO NEURRIAK

- a) Lan-prozedurak amianto-zuntzik ez sortzeko moduan antolatuko dira edo, hori ezinezkoa izatekotan, amianto-zuntzik airean zehar ez barreiatzeko.
- b) Sortutako amianto-zuntzak foku igorletik gertu deuseztatuko dira, eta hobe erauzketa-sistemen bidez egiten bada, osasun publikoarentzat eta ingurumenarentzat inolako arriskurik izan ez dezaten.
- c) Erabilitako lokal eta ekipo guztiak, eraginkortasunez eta aldizka mantendu eta garbitzeko modukoak izango dira.
- d) Amiantoa, amianto-zuntzak askatzen dituzten edo amiantoa duten materialak behar bezala itxita bilgarrietan biltegitatu eta garraiatuko dira. Gainera, amiantoa gordetzen dutela adierazten duten arauzko etiketak eramango dituzte.
- e) Hondakinak, meatzaritzako jardueretan izan ezin, hauetan beraiazko araudian ezarritakoaren arabera arautuko baitira, bildu eta lanlekutik kanpo lehenbailehen aterako dira, behar bezalako bilgarrietan itxita eta amiantoa gordetzen dutela adierazten duten etiketekin. Ondoren, hondakin arriskutsuei aplikatu dakiekeen araudiaren arabera tratatuko dira hondakin horiek.



Amianto-zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean dauden edo egon daitezkeen langile-kopurua ahalik eta txikiena eta ezinbestekoa baino ez da izango. Gainera, amiantoaren eraginpeko arriskuan dauden langileek ez dituzte ordu estrak egingo.

Era beran, jarduera hauek kokaleku dituzten lekuetan:

1.a Mugatu eta seinaleztatzeko seinale argiak egongo dira.

2.a Ezin izango da beste inor sartu.

3.a Debekatuta egongo da edan, jan eta erretzea.

Arnasbideak babesteko banakako ekipoen erabilera ezin izango da etengabekoa izan eta, langileek beharrezko den denborarik laburrena eramango dute, eta inola ere, egunean 4 ordu baino denbora gehiago. Arnasbideak babesteko banakako ekipoak erabiltzea eskatzen duten lanak egiten diren bitartean, karga fisikoaren eta klima-baldintzen araberrako atsedendialdiak aurreikusi beharko dira.


Langileek, enpresaburuak emandako babes-jantzi egokiak edo bes-telako jantzi bereziak eraman beharko dituzte; derrigorrezkoa izango da amiantoaren eraginpeko litezkeen egoeretan eta eremuetan lan egiten den bitartean jantzi horiek erabiltzea. Gainera, kaleko arropa jantzi beharko dute langileek, ezinbestean, lanlekutik irteterakoan; era berean, laneko jantziak edo babes-jantziak eta kaleko arropa bereizita gortzeko moduko instalazioak edo lekuak izango dituzte langileek.



Zertxa batean proiektatutako amiantoa.



8 SEINALEAK





Norbera babesteko janzkiak.



9 AMIANTOAREN ORDEZKOAK

Amianto ezabatu nahi badugu, beste substantzia batekin ordezkatu behar dugu, hala ere, amiantoak dituen ezaugarri bereziak direla eta, ordezkapena lortzea teknikoki zaila da eta, askotan, bestearekin ez da ezaugarri maila bera lortzen.

Horretaz gainera, amianto ordezkatzek dakartzan arriskuen inguruko hausnarketa egin behar dugu, amianto ez duten materialak arriskutsuak izan daitezkeelako, hau da, baliteke arrisku ezagun larriaren ordezkari ezagutzen eta kontrolatzen ez dugun bat jartzea.

Laburbilduz, amianto ordezkatu nahi badugu, problematika bikoitza aurkituko dugu:

- Arrisku zuzena, material alternatiboaren ondoriozkoa.
- Zeharkako arriskua, gaitasunak galtzearen ondoriozkoa.

AMIANTOAREN ORDEZKOAK	
TEKNOLOGIA ALTERNATIBOAK	PRODUKTU ALTERNATIBOAK
PVCZ EGINDAKO HODITERIA	ZUNTZAK
	• NATURALAK
	• MINERAL ARTIFIZIALAK
XAFLA IZURTU GALBANIZATUAK ALUMINIOZKO XAFLAK, MARGOTUTA	• SINTETIKOAK
	ZUNTZEZKOAK EZ DIREN MATERIALAK
	• PERLITA
	• BERMIKULITA
	• BUZTINAK
	• PRODUKTU MINERAL NATURALAK / SINTETIKOAK

10 HONDAKINAK

Amiantoa duten hondakinak (estalkiak, hoditeria, junturak, kalorifugazio materialak, andelak, zuntz-zementuzko bestelako materialak, eta abar) edo amiantozko zuntzekin kutsatuta egon daitezkeen materialen hondakinak, hala nola, behin erabiltzeko NBEK, lan-jantziak, oinetakoak estaltzekoak, filtroak, plastikozko estalkiak..., lehenbailehen jaso behar dira eta lantokitik kanpo eraman behar dira, horretarako egokiak diren ontzietan (behar bezala itxita), amianto zuntzak ingurumenean aska ez daitezzen.

Hondakin horiek arriskutsutzat joko dira eta behar bezala ontziratuta eta etiketa egokiarekin (952/1997 Errege Dekretua) kudeatu beharko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera (1406/89 Errege Dekretuko II Eranskina), baimendutako kamioi batean zabortegira garraiatzeko, Ingurumen eta Sailak era honetako hondakinentzako espresuki ematen duen baimenarekin.



Zuntz-zementu hondakinak.



11 AMIANTOA: ERANTZUKIZUN JURIDIKOAK

11.1 Erantzukizun zibila

Erantzukizun zibila dagoela esateko, pertsona batek beste bati zilegi ez den kaltea egin behar dio. Ondorioa, eragindako kaltearen arabera kalte-ordaina eman behar izatea da.

Orokorrean, kaltetuek (langileak eta kausadunak) kaltea erabat konpontzeko helburuarekin eskatzen dituzte kalte-ordain zibilak (gizarte arloko jurisdikzioaren bitartez), Gizarte Segurantzaren prestazioek sortutako kalte guztiak, eta bereziki kalte profesionalak -lanbide-jarduerarekin jarraitzeko ezintasuna- eta moralak, ez dituztela estaltzen jotzen delako. Hori guztiak, kasu batzuetan KEaren (kontratu-erantzukizuna) 1101 artikuluari jarraiki eta beste batzuetan 1902. eta 1910. artikuluen (kontratuz kanpokoak edo akilianoa) arabera.

Hasiera batean, erantzukizun zibila eta administrazioaren erantzukizuna eta erantzukizun penala bateragarriak dira eta hainbat epai daude gai honen inguruan. Ondoren, horiei buruzko ildo orokorrak eta arazoak azalduko ditugu.

11.2. Administrazioaren erantzukizuna

Administrazioaren erantzukizuna enpresaburuari eska diezaiokegu, babesteko beharra ezartzen duten administrazio arauak hausteagatik, langileak kalterik izan ez badu ere. Nolanahi ere, kaltea sortzen bada, babesteko mekanismo gehigarriak abiarazten dira. Erantzukizun mota horren helburua zigorra da, nahiz eta langileen eskubideak eta Gizarte Segurantzarekin izan behar duen harremana babesten dituen. Honako hauek dira:

Zigortzailea: prebentzio arauak ez betetzeagatik isunak edo zigorrak ezartzean datza (Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretua).

Jarduera etetea arriskua larria eta gertukoa denean (Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren inguruko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 44. artikulua eta Lan arloko arau hausteengatik zehapenak ezartzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretuaren 11. artikulua (98-06-03ko BOE)).

Lantokia etetea edo ixtea egoera oso larriak aldi berean gertatzen direnean. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 53. artikulua.



Ehun-kalorifugazioa.

11.3. Erantzukizuna Gizarte Segurantzari dagokionez

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrari buruzko Testu Bategina onartu zuen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 123. artikulua arautzen duen zerbitzuen **errekarguak**, istripu edo gaixotasuna gertatzeak zerbait ez betetzearekin zerikusia du eta arau hori bete ez duen enpresaburuaren gain soilik ezartzen da; enpresaburuak segurtasun eta higiene neurriak ez betetzeagatik eragindako gaixotasunaren ondorio diren zerbitzu ekonomikoen % 30 eta 50 bitarteko igoera ordaindu behar die langileari edota langilearen legezko oinordekoei. Ez da aseguragarria. Horretaz gainera, errekarguaren tramitazioa ez da eteten, nahiz eta auzi penala irekitzeagatik zigortzeko prozedura gelditu

Bonus Malus delakoa, hots, gaixotasun profesionalak gertatzeko arriskua duten enpresetarako lan-istripu eta gaixotasun profesionalen sari gehigarriak ezartzeko aukera eta enpresek laneko arriskuei aurrea hartzeko arauen betetze-mailaren arabera sariak %20ra arte gehitu eta



%10era arte murrizteko aukera. Dena den, lege-aurreikuspen hau ez da oraindik arauz garatu. Arauak betetzen ez dituzten enpresak zigortu eta ezbehar-tasarik txikienak dituztenak saritzean datza.



Kalorifugazioa kordoi itxuran.

11.4 Erantzukizun penala

Amiantoari dagokionez, erantzukizun penalak, batez ere material horretatik eratorritako gai denak produzitzeko eta merkaturatzeko debeketik hasita, ZKn (LO 10/95) bi aldaera edo ikuspegi izan ditzake 2001-12-7ko MArekin).

- Osasun publikoaren aurkako delitua: Arau hau ezar lekieke, 2002. urteko ekainetik aurrera gure legeriak debekatutako edozein amianto-mota daramaten produktuak ekoiztu eta/edo merkaturatzen dituztenei. Nolanahi ere, babestutako ondasuna langileen osasuna baino haratago doa, eta biztanle ororen osasuna barne hartzen du.
- Langileen eskubideen aurkako delituak; zorrozki lanarekin zerikusia duten eta langile zirkunskribatuen osasunaren aurkakoak diren kalteen aurrean, Zigor Kodeko 316. artikulua sei hilabete eta hiru urte bitarteko espetxe-zigorrak eta sei eta hamabi hilabete bitarteko isunak ezartzen ditu “laneko arauak hautsiz eta legez



horiek betetzera behartuta egonda ere, langileek jarduera segurtasun eta higiene neurri egokiekin garatu dezaten errazten ez dutenentzat eta, era horretan, langileen bizitza, osasun edo segurtasuna arriskuan jartzen dutenentzat [...]”

- Zuhurtziagabekeria larria: Langileen osasunaren aurkako edo osasun publikoaren aurkako delitu biak, zuhurtziabekeria larriaren (317. eta 367. artikulua) kasuetan barne har daitezke, adibidez, enpresaburuak babes-neurriak ezarri ez dituenen horien derrigortasuna ezagutzen ez zuelako, baina behar bezala jokatu eta, ezarrita eduki behar zituela. Beste adibide bat izan daiteke, enpresaburu batek zuntz-zementuzko plakak langileei babes-neurriak ezarri gabe kentzen dituenen, jarduera honen arrisku-garritasuna ezagutzen ez zuela alegatu edo egiaztatzen badu. Dena den, kasu honetan zigor penala ezar liezaioke, baina zigorrik txikiena jasoko luke.

12 ERANTZUKIZUNEN LEHIA

12.1. Penala eta Administrazioarena

“Non bis in idem” printzipioari jarraiki, erantzukizun penala eta Administrazioaren erantzukizun zigortzailea ez dira bateragarriak (ez zerbitzuen errekarguarekin, ezta enpresaburuaren zuzeneko erantzukizunarekin ere). Lan arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko legearen testu bategina onartu zuen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikulua ezartzen du “Auzibidean nahiz administrazio bidean zigorra jaso duten egintzak ezingo dira berriz zigortu, baldin eta subjektu, egintza eta oinarri berak badituzte”. Delitu-zantzurik hautemango balitz, Administrazioak dagokion organo judizialari edo Fiskaltzari jakinarazi beharko dio, eta ez du prozedura zigortzailearekin jarraituko, jurisdikzio- edo administrazio-egintzak amaitu bitartean.

Zilegia ez den penala dagoela estimatzen bada, administrazioaren arloko ekimen zigortzaileak berriro jartzen dira martxan eta, beti, penala denaren arloan frogatu eta deklaratu diren gertakariak izan behar dira aintzat.

Hala eta guztiz ere, adierazi dugun bezala, erantzukizun penala zerbitzuen errekarguarekin bateragarria da, eta horren izapideak ez dira eteten zigor eginbideak ireki arrear, baina zigor-egintza, ordea, geldiarazi egiten da.



12.2. Penala eta Zibila

Erantzukizun penala eta zibila bateragarriak dira. Kasu horietan penalaren arloko jurisdikzioko epaileek beraiek hartuko dute erantzukizun zibilagatiko kalte-ordainen erabakia, izaera subsidiarioarekin eta hala dagokionean.

Gizarte Segurantzaren zerbitzuen errenergua, gizarte arloan arauak ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurak arautzen dituen maiatzaren 14ko 928/1998 Errege Dekretuaren 27. Artikuluaren arabera (98-6-3ko BOE), arauak ez betetzearen ondoriozkoa den erantzukizun zibila, penala eta administrazioaren erantzukizunarekin BATERAGARRIA da.

Bateragarria eta askea da, eremuz igortzailean administrazioaren erantzukizuna egonda edo egon gabe tramitatu baitaiteke. Izapide penalak irekitzen badira ere, Gizarte Segurantzaren zerbitzuen errenergua tramitazioak aurrera egiten du.

13 ONDORIOAK

Kalkulu guztien arabera, hurrengo urteetan amiantoaren eraginpean izatearekin zerikusia duten kartzinoma eta mesoteliomen diagnosi kopurua izugarri handituko dela aurreikusi dezakegu. Helarazi nahi izan dudana bezala, bide zibiletik – arau-haustek preskribitu direnean ezar daitezkeen bakarrena dena – konpentsazioa edo kalte-ordaina jasotzeko zailtasunak oso handiak dira eta emaitzak, gehienetan, somaezinak dira, ausazko faktoreen arabera izaten direlako.

Zerbitzuen errenergua ere ez da bidea, enpresa desagertu edo kaundimengabea denean.

Dena dela, ezinbestekoa da lanaz gerozko osasunaren zaintza kontrolatzeko araudien aurreikuspenak betetzea eta langileak, uneoro, laneko historial klinikoa eskura izan dezan eta haren jagole nagusi izan dadin behar diren neurriak hartzea.

Azkenik, mundu mailan dagoen egoeraren inguruan hausnartu behar dugu, amiantoaren industriatan egotea herrialderik garatuenetan soilik debekatuta dutelako eta, beraz, amiantoaren mugarik ez duten lurralde eta eremuetan produzitzen eta aplikatzen dutelako; lurralde eta eremu horietan, gainera, Gizarte Segurantzako sistemak ez daude oso garatuta eta ez dute ondorio kaltegarriari aurre egiteko baliabide eta aurreikuspenik.



14 BIBLIOGRAFIA

31/1995 LEGEA, AZAROAREN 8KOA, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

485/1997 ERREGE DEKRETUA, apirilaren 14koa, laneko segurtasuneko eta osasuneko seinaleztatzeari lotutako xedapen minimoei buruzkoa (1997-04-23ko BOE)

773/1997 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipoak erabiltzeari dagozkion segurtasuneko eta osasuneko xedapen minimoei buruzkoa (1997-06-12ko BOE).

2001eko abenduaren 7ko AGINDUA, 1406/1989 EDaren I. eranskina aldatzen duena, zeinak hainbat substantzia eta produktu prestatu arriskutsu merkaturatzeko eta erabiltzeko murriztapenak ezartzen baititu (2001-12-14ko BOE).

Europako Parlamentuaren eta 2003ko martxoaren 27ko Kontseiluaren 2003/18/CE zuzentaraua, amiantoaren eraginpean jarduten duten langileen babesari buruzko 83/477/CEE zuzentaraua aldatzen duena.

OME, 1987, Lanbide gaixotasunen hautemate goiztiarra.

1299/2006 ERREGE DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Gizarte Segurantzako sistema barruko gaixotasun profesionalen laukia onartu eta horiek jakinarazi eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituena. Abenduaren 19ko 302. BOE.

UNE EN 481: Atmosferak lanpostuetan.

Bizkaiko CNVM, Artile mineral isolatzaile eta osasunaren gaineko Jardunaldi Teknikoaren Laburpenak

EL AMIANTO EN ESPAÑA. CCOOren txostena

396/2006 ED, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.